TESIA EUSKARAZ EGITEKO ASMOA ADIERAZTEKO DOKUMENTUA

Doktoregoa jarduera akademiko eta profesionala da, bide ematen duena goi mailako gaitasun zientifikoak lortzeko, bai eta gaitasun orokorrak ere, alor sozioekonomiko guztietako erantzukizuneko lanbideetan aintzat hartzen direnak. Doktorego-tesia euskaraz egiten duten doktoregaiek ekarpen handia egiten diote EHUri, ikerketan eta irakaskuntzan euskararen erabilera sustatzen laguntzen baitute. Areago, tesia euskaraz egiten duten doktoregaiek ekarpena egiten diote euskararen beraren garapenari ere. Izan ere, doktorego-tesia espezializazio-maila altueneko lan akademikoa delarik, lan hori euskaraz egiteko, doktoregaiek euskarazko terminologia eta fraseologia erabili behar dituzte, baita sortu ere, oso maiz. Gainera, euskara akademikoaren garapenari haien ekarpena egiteaz gain, tesia euskaraz egiten duten doktoregaiek beren hizkuntza-gaitasunak ere garatzen dituzte tesia euskaraz egitearekin batera eta, horrela, irakaskuntzaren, ikerketaren eta dibulgazioaren hizkuntza-kalitatea hobetzen laguntzen dute.

Doktoregoa lortzeko, jatorrizko ikerketa-proiektu berritzaile bat egin behar da, eta proiektu horren osagarri izango den etengabeko prestakuntzako plan pertsonala abian jarri eta gauzatu beharra dago. Tesia euskaraz egin nahi duten doktoregaiek hori ere hartu behar dute kontuan beren prestakuntza-plan pertsonalean. Izan ere, tesia euskaraz idazteko eta ahoz defendatzeko komunikazio-gaitasun akademiko aurreratuak garatu behar dira. «Euskarazko Doktoregoa» aipamena lortu ahal izango dute tesia euskaraz egiten duten doktoregaiek baina, horretarako, baldintza batzuk bete beharko dituzte. Lehen baldintza da, hain zuzen ere, tesia euskaraz egiteko asmoa adierazteko dokumentu hau sinatzea.

Tesi-zuzendariek erantzukizun handia dute doktoregaiak tesia egiteko prozesuan gidatzeko eta, tesia euskaraz egiteko asmoa adierazten duten doktoregaien kasuan, erabaki horrek dakarzkien betekizunen jakitun direla bermatzeko.

Dokumentu honetan jasota daude agiri honen sinatzaileek dituzten eskubide eta betebeharrak, helburua izanik «Euskarazko Doktoregoa» aipamena lortzeko baldintzak bete egingo direla doktorego-tesia egin bitartean. Horrela, bada, agiri hau sinatzen dute:

Doktoregaia:

Zuzendaria:

Zuzendaria (balego):

Zuzendaria (balego):

Doktorego-programa:

Matrikula-urtea: lehena ☐ bigarrena ☐ hirugarrena ☐ laugarrena ☐

Tesia gordailuan uzteko aurreikusitako data gutxi gorabeherakoa (azken urtean dauden doktoregaiek betetzekoa):

Dokumentu hau alde guztiek sinatu behar dute, doktorego-programako lehen, bigarren, hirugarren edo laugarren matrikula egin ondoren, doktoregaiak tesia euskaraz egiteko asmoa baldin badu.

1. «Euskarazko Doktoregoa» aipamena lortu ahal izateko betekizunak

(UPV/EHUko Doktorego Ikasketa Ofizialen Gestiorako Arautegia, Gobernu Kontseiluak 2025eko abenduaren 11n onetsia).

- Doktorego-programan matrikula egin ondoren Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzari tesia euskaraz egiteko asmoa adieraztea dokumentu honen bidez.
- Doktore titulua lortzeko formazio-garaian zehar doktoregaiak jarraipena izatea Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak ezarritako deialdi eta irizpideen arabera
- Doktore titulua lortzeko formazio-garaian zehar doktoregaientzako berariazko hizkuntza-formazioan parte hartzeko aukera edukitzea.
- Tesiaren % 100 euskaraz idaztea, tesia edozein motatakoa izanda ere.
- Ahozko defentsaren % 100 euskaraz egitea.

  (Ikus arautegian «Nazioarteko Doktoregoa» aipamena ere lortu nahi duten doktoregaiek kontuan hartu beharrekoak.)
- «Euskarazko Doktoregoa» aipamena lortzeko eskaera egitea tesia gordailuan uzteko unean.

2. Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzaren funtzioak eta eginkizunak

- Doktoregaiek tesia euskaraz egiteko asmoa adierazteko formularioa diseinatzea, eta datu-base batean biltzea formulario hori aurkezten duten doktoregaiei buruzko informazioa.
- Doktorego-tesia euskaraz egiten ari diren doktoregaiei jarraipena egiteko deialdiak egitea, eta jarraipen horretarako irizpideak eta aurrera eramateko epaimahaiak finkatzea.
- Hizkuntza-prestakuntzarako berariazko programa eskaintzea doktoregaiei, euskarazko komunikazio espezializaturako gaitasunak garatzen laguntzeko, bereziki erregistro akademikoak, eta terminologia eta fraseologia espezializatuak lantzeko.
- Doktoregaiei «EHULKU sarea» eskaintzea, tesia idatzi ahala sortzen zaien edozein hizkuntza-zalantza kontsultatu ahal izateko.
- «Euskarazko Doktoregoa» aipamena lortzeko nahitaezko txostena tramitatzea.
- Euskararen C2 maila egiaztatzetik salbuetsita egoteko akreditazioa ofizioz tramitatzea 47/2012 Dekretuaren arabera.

3. Tesi-zuzendarien betebeharrak

Doktorego Ikasketak Kudeatzeko Arautegian jasotakoari jarraituz, tesiaren zuzendariak arduradun nagusiak dira doktoregaiaren prestakuntzan eta ikerketa-lanak zuzentzean, jarduera horien koherentzian eta egokitasunean, doktorego-tesiaren gaiaren arloan izango duten inpaktuan eta berritasunean, plangintza eramatean eta, behar izanez gero, doktoregaiak izena ematen duen beste proiektu eta jardueretara egokitzean. Horregatik guztiagatik, honako hau adierazten dute:

1. Ezagutzen dute Gobernu Kontseiluak 2025eko abenduaren 11n onetsitako UPV/EHUko Doktorego Ikasketa Ofizialen Gestiorako Arautegiak «Euskarazko Doktoregoa» aipamenari buruz ezarritakoa (IX. KAPITULUA).
2. Konpromisoa hartzen dute bermatzeko doktoregaiak tesia egiten duela eta arautegian zehaztutako baldintzak betetzen dituela.
3. Konpromisoa hartzen dute doktoregaia Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako jarraipen-txostenetan emandako aholkuen arabera berrorientatzen laguntzeko.
4. Doktoregaiak gordailuan uzten duen tesiaren euskarazko bertsioa doktoregaiak idatzi duela bermatzeko konpromisoa hartzen dute.

4. Doktoregaiaren betebeharrak eta ardurak

Honako hauek dira tesia euskaraz egiteko asmoa adierazteko dokumentu hau betetzen duten doktoregaien konpromisoak:

1. Urteko prestakuntza-plan pertsonalaren barruan euskarazko komunikazio-gaitasun akademikoak lantzeko formazioa ere kontuan hartzea.
2. Hizkuntza-zalantzak argitzeko EHULKU sarea erabiltzea.
3. Euskarazko tesiak egiteko prozesuaren jarraipenerako deialdietan parte hartzea, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak ezarritako irizpide eta epeen arabera.
4. Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak egindako jarraipen-txostenetan jasotako gomendio eta orientazioak kontuan hartzea.
5. Doktorego-tesiaren idatzizko dokumentuaren eta ahozko defentsaren hizkuntza-kalitatea zaintzea.
6. Uneren batean tesia euskaraz egiteko asmoa bertan behera utzi nahi izanez gero, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzari jakinaraztea erregistroaren bidez, doktoregaiak eta zuzendariek sinatutako idatzi baten bidez.

Data:

DOKTOREGAIA	ZUZENDARIA	ZUZENDARIA (balego)
Izen-deiturak eta sinadura	Izen-deiturak eta sinadura	Izen-deiturak eta sinadura